

TREBAKUNTZA 2014-05: BAIT PARTIKULA

Zalantza handiak izaten ditugu askotan BAIT partikula aditz laguntzaileekin elkartzean:
*bait gara ala baikara... Inoiz, behar ez denean ere erabiltzen dugu.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

- 1 **Langileek udako ordutegia jarri dute atean, ez bait da negukoaren berdina izaten.*
- 2 **Ez dakigu noiz izango den bilera, alkateak ez bait zuen argitu.*
- 3 **Hasi eztabaida gu gabe, ikastarotik berandu helduko bait gara.*
- 4 **Kiroldegiko obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, igerilekuak irailerako gertu egon beharko bait luke.*
- 5 **Obretako seinaleak neuk eskatuko ditut, hirigintzako arduraduna bait naiz.*
- 6 **Badoaz udaletxera. Izan ere, hamarretarako han egon behar bait dute.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Aditz laguntzaileekin elkartzean, BAIT partikulak forma desberdinak hartzen ditu. Hona hemen adibide batzuk, aditz laguntzaile bakoitzaren hasierako bokalaren arabera nola idatzi behar den:

BAIT + NAIZ:	bainaiz
BAIT + ZARA:	baitzara
BAIT + GARA:	baikara
BAIT + DA:	baita
BAIT + LUKE:	bailuke

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

1. Ad. Langileek udako ordutegia jarri dute atean, ez **baita** negukoaren berdina izaten.
2. Ad. Ez dakigu noiz izango den bilera, alkateak ez **baitzuen** argitu.
3. Ad. Hasi eztabaida gu gabe, ikastarotik berandu helduko **baikara**.
4. Ad. Kiroldetik obrak ahalik azkarren amaitu behar dira, igerilekuak irailerako gertu egon beharko **bailuke**.
5. Ad. Obretako seinaleak neuk eskatuko ditut, hirigintzako arduraduna **bainaiz**.
6. Ad. Badoaz udaletxera, hamarretarako han egon behar **baitute**.
Badoaz udaletxera. **Izan ere**, hamarretarako han egon behar **dute**.

BAIT partikula esaldi nagusia (badoaz udaletxera) eta mendeko esaldia (hamarretarako han egon behar baitute) dauden kasuetan erabiltzen da, eta mendeko esaldietan joaten da. IZAN ERE erabiltzen dugun kasuetan ez dago mendeko esaldirik; beraz, ezin da BAIT erabili.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.org (Iratxe)

Hurrengora arte!

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99